


3. Sistema sekuentzialen egitura orokorra

Sistema sekuentzialen egitura eskematiko orokorra 156. Irudian erakusten da. Han, zirkuituari dagozkion aldagaiak adierazi dira, alegia, $(x_1, \dots, x_n)$ sarrerak, $(z_1, \dots, z_m)$ irteerak, $(y_1, \dots, y_r)$ oraingo egoerak eta $(Y_1, \dots, Y_r)$ zirkuituaren hurrengo egoerak. Azpimarratu behar da x_i , z_i , y_i eta Y_i aldagai horiek aldagai bitarrak direla hau da, 0 logikoa eta 1 logikoa dira har ditzaketen balioak. Halaber, y_i eta Y_i aldagaiek adierazten duten azpiko kontzeptuei buruz hausnarketa egitea gomendagarria da, hots, *oraingo egoera* eta *hurrengo egoeraren* esanahiari buruz, hurrenez hurren. Hasteko, badirudi izenak elkarrekin aldatuta daudela (eskema ikusita, ematen du denbora zehatza pasatu ostean Y -ak y bihurtzen direla), baina ez da horrelakorik gertatu. Izan ere, ulertu behar da berrelikadura-begiztan agertzen den “Memoria”-blokean oraingo egoerak “gordetzen” direla, eta Memoria horren edukiaren denborazko bilakaera *hurrengo egoeren* menpekkoa dela. Hori dela eta, y_i eta Y_i balioei *egoera-aldagai* eta *kitzikapen-aldagai* deritzegu, hurrenez hurren.



156. Irudia

Azkenik, Memoria blokearen edukiaren denborazko bilakaera denborazko erreferentzia-pauta bati atxiki dakioke, hau da, uhin periodiko egonkor bati (erlojua).